

## Kronika

### **Karlos Santamaria; Kultur eragilea**

Dagoeneko hiru omenaldi izan ditu aurtengo urtean Karlos Santamaria jaunak; eta laugarren bat datorren udazkenean egingo omen diote.

Aurrena *Jakin* aldizkariak eskaini zion. Oso familiako eta hurbilekoa, aldizkariaren bulegoan bertan. Eskerronezko lekukotasuna izan nahi izan zuen *Jakin* taldearenak, Karlosek berak aldizkarirako eskaini zuen lehen lankidetzatik hogeitabost urte betetzen zirela eta.

Bigarrena *Eusko Ikaskuntza* erakundeak egin zion, apirilaren 13an. "Euskal Kulturaren alde burutu duen lan guztiarengatik", zioen agiriak. "Manuel Lekuona" saria eman zioten, Remigio Mendiburuk egindako brontzezko eskulturaren irudikatua.

Geroxeago, apirilaren 27an, Gipuzkoako Foru Aldundiak egin zion hirugarren omenaldia - benetan instituzionala oraingoan-; urrezko domina ezarri zion eta Gipuzkoako seme kutun izendatu zuen.

Laugarrena Euskal Herriko Unibertsitateak egingo dio udazkenean, eta bertako "Doctor honoris causa" izendatuko du.

Karlos Santamaria ezagutzen duenak badaki ondotox ez zaizkiola batere atsegin horrelako omenaldiak, berari dagozkionez behintzat, ingurukoak berari begira jartzea ez zaiolako, eta horrelakoetan urduri jartzen delako. Hala ere onartu egin ditu omenaldiok; ondo onartuak eta eramanak, gure ustez.

Kultur alorreko gizon-emakume ospetsuei egiten zaizkien horrelako omenaldiek sortu ohi dute inguruan zalantzatxoren bat. Batzutan gizarteak horiekiko duen kontzientzia txarra zuritzeko ere izan ohi dira seguruenik; ordain edo medeaperaren zentzua hartzen dute orduan omenaldiek. Omenduak izan ohi du sarritan horrelako goraipenak eta aitopenak berandutxo ote datozkion susmoa, ez zahartzaroan etorri ohi direlako bakarrik, eta bai batez ere inorentzat "kalterik" ekarriko ez duten momentuan etorri ohi direlako. Baina bizitzaldi luzean ikasitako zuhurtziak ironia pixka bat erantsia die seguruenik, irriparez onartu ahal izateko bakezko omenaldiok.

Gogoeta inuxenteok aparte, Karlos Santamariaren aldeko ekintzok benetan poztu gaituztela esan behar dugu. Mereziki zituela? Bai, horixe! Baina ez da merezimenduen kontua bakarrik, eta bai bereziki aurrera begirako proiektuarena.

"Animador cultural" delakoa profesio bihurtu baino lehen Karlos Santamaria kultur eragile bikaina izan da gure Herrian, eta bereziki euskararen eta euskal kulturaren alorrean. Ikastolek (Santo Tomas, etab.), Unibertsitateak (Zorroaga eta), euskal aldizkariak (Jakin, Argia,...) Euskaldunon Egunkariak... badakite askotxo Santamariaren eragin sutsuaz.

Horreagaitik txalogarriagoa gertatu zaigu Foru Aldundiak egin dion omenaldia, hain zuzen ere, aitopenetan eta saritan geratu ez delako, eta, Karlos Santamariaren obra biltzeko eta aztertzeko proiektu finkoaz gain, horren eragin soziala eta kulturala zabaltzeko eta aurrera luzatzeko asmo sendoa agertu duelako.

### **Bertsolari; aldizkari berria**

Literatur aldizkari anitz ezagutu dugu aspalditxo honetan euskaraz: era askotakoak eta iraupen ezberdinekoak. Beti iruditu izan zaigu, ordea, borondate miresgarria eta amets eder